

DIRU SARRERAK

UndergroundBnb-ren diru-sarrerak prezio sistema malgu batean oinarritzen dira. Horrek esan nahi du erabiltzaileek ordaintzen duten prezioa kokapenaren, ordutegiaren eta eskaeraren arabera aldatzen dela. Eskaera txikia dagoenean, prezio finkoak erabiliko dira, eta eskaera handia dagoenean, prezioak pixka bat igoko dira. Horrela, prezioak bidezkoak eta egoerara egokituak izango dira.

Diru-sarrera nagusia alokairu bakoitzeko komisioa da. Hau da, erabiltzaile batek garaje bat alokatzen duen bakoitzean, plataformak zati bat irabazten du. Horrez gain, garajeen jabeentzat hileko harpidetza bat egongo da, aplikazioaren mantentzea, laguntza teknikoa eta aseguruak barne hartzen dituena. Ohiko erabiltzaileentzat ere harpidetza aukera bat eskainiko da, prezio hobeekin.

Beste diru-sarrera bat izango da segurtasun-sistemen salmenta edo alokairua, adibidez sarbide-sistema adimendunak edo cepo bereziak. Sistema hauek balio erantsia ematen diete garajeen jabeei. Etorkizunean, aplikazioan publizitatea ere sartzea aurreikusten dugu, autoekin lotutako zerbitzuen iragarkiekin.

Proiektua errentagarria izan dadin, garaje nahikoak eta eguneroko erreserba kopuru egonkorra behar dira. Hasieran zaila izan daiteke, baina erabiltzaile eta jabe kopurua handitzen den heinean, diru-sarrerak ere handituko dira. Eredu hau eskalagarria da, hau da, zenbat eta erabiltzaile eta garaje gehiago egon, orduan eta diru gehiago sortuko du UndergroundBnb-k.

